

Jabier Muguruza eta Garik kontzertua emongo dabe Igorren

12. orrialdea

Arratiera ikastaroa Bedian

Arratiako herri hizkerea, agozko zein idatzizko erregistroetan, landuteko Bediako Udalak ikastaro bat antolatu dau. Sei saio izango dira eta lexikoa, idazteko gomendioak eta Arratiako etno-ipuina eta esaundak ikasteko aukera egongo da bertan, Juan Manuel Rekalde eta Angel Larrea, Aitor Erdozia eta Juan Manuel Etxebarriaren eskutik, hurrengo hurrengo. 12. orrialdea



Sisetan Mendi Martxea eta Bizikleta Martxea Diman

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

215


2014ko urri bigarrenaren 1a
hamabostekaria
www.begitu.org

Nigeriako umeen egoerearen barri euki dabe Areatzakoak alabea adoptetara joandakoan

Maitane Olatz Bilbao eta Xabier Sagarna Areatzakoak Nigeriara joan ziran umearen bila eta ezusteko batzuk zirala eta, bertan geratu behar izan ziran hiru hile eta astebete.

Ezustekoen artean, esleitu jakien umea ezin izan ebela adoptatu eta beste bat adoptetako trami-teak egin behar izan ebezala. Gainera, legea aldatu zan eta bertan harrapatu ebazan bete-betean Areatzakoak. Lege barriaren arabera, adopzioan emoteko umeak ikertu behar ziran, adopzioa legala

zala bermatuteko. Legea ona izan arren, lar luzatzen dirala prozedimentuak uste dabe arratiarrak. Lagosen bizi izandako esperientzia hau beti eukiko dabela gogoan dinoe. Umeen egoerea sano latza da eta asko eta asko hil egiten dira ebitau daitekezan gaisotasunak jota. 8. eta 9. orrialdeak



Xabier Sagarna eta Maitane Olatz Bilbao Chinyere Izadigaz.

DIMA

Sei atxilotu Diman hiru adingabe jo eta umilatzeagaitik

Gazteak marihuana ostutera sartu ziran lehendik lokalizata eukien baserri bateko negutegira. Landare batzuk lapurtu ostean, Bilborantza abiatu ziran, kotxe batek segidu ebazan eta gazte-tako bat harrapatu. Besteak buelta arazo ebazan eta motxilak lapurtu, jo eta narrutsik itxi ebazan baso baten. Gazteak akanpauta egoan talde bat topau eben eta hareek erropea itxi eta Ertzantzari deitu eutsien.

Ertzaintzak ikerketa bat ipini dau martxan eta sei gizon atxilotu ditu, gazteak legez kanpo atxilotzea, mehatxatzea eta lapurtzea egotzita. Ertzaintzak ez dau bazterzen atxiloketa gehiago egitea. 7. orrialdea

ZEBERIO

Zeberio bere sustraietatik eraikiz, Lehenengo Sektoreaz II. Jardunaldiak

Lehenengo Sektoreari eskeinitako bigarren jardunaldiak antolatu ditu, urri bigarrenaren lehengo bariku-zapaturako Zeberio Udalak. "Haziak eta ezagutzak trukatu" lelopean berbaldiak, bideo emonaldia eta Hazien Azokea egongo dira hilaren 3an eta 4an, Zeberio Plazako ermitan. Zapatuan, Nekazalgunean, bertan garatzen dabizen proiektuen barri emon eta Basortu alkartearen konserberearen aurkezpena egingo dabe. 5. orrialdea



Bilbo kalea 6, 2. entr
48.960 Goldakao
94 600 46 02
663 416 655

• Eskola laguntza eta orientazio psikopedagogikoa • Ikas teknika eta ohituraren lanaketa • Irakurmen eta idazmen arazoaren lanaketa • Arreta goiztiarra • Talde murriztuak (5 gehienez) eta jarraipen pertsonalizatua
centrodeapoyopdp@gmail.com

ARANTZAZU

Udagoieneko jaiak

Arantzazuk udan eta udagoiengan ospatuten dauz jaiak. Uda hasieran, sanpedroak eta orain, urrietan, sanfaustoak. Lehenengoak jai egitarau potoloagoa izaten dabe, eta urrietakoak bertako jenteari begira antolatuten dira. Holan, frontoian egiten dan herri afaria gogoan izaten dabe urte osoan arantzazutarrak. Aurten, Zuberoako Maskaradea antzetzuko dau Gaztedi Dantzari Taldeak. Inguruko herrietatik joateko moduko ikuskizuna, duda barik. 7. orrialdea



IRU - DEKO FERRETERIA

• Alfonso Molina da dendaren arduradun barria

• Saltoki hau Juan Bonal fundazioaren laguntzailea da

Agirre Lehendakaria 9 • Igorre
94 673 61 92 • irudeko@outlook.es


ARRATIA ZURI-BALTZEAN

ZERGAK XVIII. GIZALDIAN (I)

Bateri baino gehiagori ipinten jakoz uleak puntan Errenta Aitorpenagaz pentsatzen. Baina zelan funtzionetan eban zergen asuntuak orain dala 300 urte? Arratian XVIII. gizaldian, administrazio publikoa finantzietako, zerga mota bi egon ziran: zuzenekoak eta zeharkakoak. Zeharkakoa zan, kasurako, ardauren konsumoaren gaineko zerga, eskualde osoa zeharkatzen eban errepide bat egiteko eta herriko medikua kontratatetako zana. Zuzenekoak, etxe bateko buru bakotzak pagau behar ebazan ziran. Atzen honeek "dohaintzak" izena hartzean eban Koroarentzat baziran, eta Bizkaiko edo Arratiako merindaderako baziran, barriz, "banaketak" izena hartzean eban.

Bizkaiko Jaun eta Espainiako Erregeak eskatu ebazan dohaintzak Gernikako Batzar Etxean eta han buru bakotzeko zerga bihurtu ebezan lehen dohaintzak ziranak. Holan, 1779an, etxeko buru bakotzeko 22 errealeko dohaintza bat eskatu zan. Zeberioko elizateak, herriko infanzoiiez osotuta, ordaindu ebazan orduan 1.100 erreale, egoazan 50 bat etxeko buruakaitik. 1700 eta 1784 artean, Zeberioko herri kontuetan, 500 eta 3.000 erreale arteko sei dohaintza jaso ziran, 1702, 1706, 1709, 1711, 1789 eta 1790 urteetan, zehatz esanda.

Bizkaiko lurralde eta Arratiako merindadeko zereginetarako "banaketak" ordaintzen ziran. Kasu honetan be, Batzar Nagusietan, herri eta herribildu bakotxari kantidadez zehatz bat esleitu jakon. 1779an, 14 errealeko dohaintza



1700 eta 1784 arteko zama fiskala Zeberioko elizatean (infanzoiak).

eskatu zan etxeko buru bakotzeko, holan, Zeberioko infanzoiak 700 erreale emon ebezan kontzeptu honengaitik. Banaketak ia urtero ko-brau ziran, 1700 eta 1784 artean

81 bider, hain zuzen be.

Auzoko bakotzeko zuzeneko zergen kontzeptuan, dohaintzak edo banaketak izan, urteko zama fiskala, 13 erreale eta erdikoa zan, gixi go-

rabehera 1.160 erreale aitutatuko 85 urteetan. Atxikitutako grafikoan ikusten da zama fiskal hori: zutabe grisetan (banaketak) eta beilegietan (dohaintzak), eta bere baliokidea familiako marra gorri legez.

Udalak eskubidea eukan gastu honek errekueretako auzoko jaubeetatik eta holan egiten eban. 1711n banaketa bat agertzen da herri kontuetako sarreretan. Zeberioko infanzoiak, guztira, 456 erreale ordaindu behar ebezan. Urte hartan zenbatu ziran 57 sutondo edo auzoko infanzoiaren partaidetza, beraz, euretako familia bakotzak 8 erreale emon behar ebazan. Herriko kontuetako hurrengo oharrek erakusten dau *per capitako* zerga hau benetan bildu zala:

"Item 456 reales que importo un repartimiento de 8 reales por foguera".

Jürgen Lange

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara
Urri lehen. 29tik urri bi. 5era

Rodríguez Martínez, Igorre, Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.

Urri bigarrenaren 6tik 12ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Urri bigarrenaren 13tik 19ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.
Zeberiokoak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Lucía Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 673 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.


Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

Babesleak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Vicesecretaría de Política Lingüística



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia, Irati Urien eta Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Iñigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodríguez, Pablo Rodríguez eta Rut Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Azibar Sagarna eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.800 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Burrukatzeak merezidu daualako!

Noka talde feministea Euskal Herriko Abortatzeko Eskubidearen Plataformako kidea dan legez hona hemen egin dogun balorazinoa:

Pozik gagoz! Espainiako Gobernuak bertan behera itxi daualako abortuaren lege erreforma atzerakoia. Lortu dogu mobimentu feministatik zein jentarteko beste sektore batzuetatik egindako burrukearen ondorioz, abortuaren lege erreforma bertan behera gelditzea. Alberto Ruiz Gallardonnek ezin izan dau erreforma aurrera eroan. Zorionak!

Abortoaren aldeko burrukea, burruka historikoa izan da mobimentu feministarentzat. Burrukea ez da atzo goizean hasitakoa, 40 urte daroaguz burruka honetan eta beraz mobimentu feministearen ibilbidean garaipen desbardinak izan doguz, eta hau beste bat da, gure memorian eta historian idatzirik geldituko dana.

PPko gobernuak sano erreforma atzerakoia egin nahi izan dau eta ez dau lortu. Ez dau lortu mobimentu feministea parean izan daualako, baina baita jent-

tarteko beste hainbat sektore be: osasun langileak, alderdiak, herri mobimentua eta herriko jentea orohar.

Hata guzti be, ezin da ahaztu andron gorputza beti dagoala mehatxupean eta lege honegaz ez bada be, bestelako arau idatzi edo kontrol mekanismoak dituela estadiak zapalkuntza patriarkalagaz jarraituteko. Gainera, Rajoyk jada iragarri dau egungo legeri aldaketa batzuk egingo deutzala 16-17 urte bitarteko andra gazteen eskubideak murriztuz, gurasoen baimena behar izatea eta familia babesteko planaren inguruan be aitamenik egin dau.

Beraz, mobimentu feministatik beharrea eta burrukan jarraituko dogu, androk "gure gorputza gure erabakia" dala aldarrikatzen jarraituko dogu, sexualidadea askatasunez biziteko eskubidea aldarrikatzen eta baita, eskubide sexual eta erreproduktiboan alde burrukan, artean, egungo abortuaren legean hanka motz dan sexu-hezkuntzea exijiduten.

Honenbestez, edozein ofensibaren aurrean hortxe parean izango gaitue!

NOKA TALDEA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidua makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, berrik eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Urrietan

URRI BIGARRENA						
A	M	E	E	B	Z	D
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

Iraila eta urria hilabeteak hartzean dauan sasoia dira urriak. Gehienbat urrietan (urrietan, agoskatuta) erabilten da. Pluraleraz erabilten da beti, urri izeneko hilabeteak izan be bi diralako: urri lehenengoa (iraila) eta urri bigarrena (urria). Gero eta gitiago entzun arren Arratian oraindokarren esaten dira. Adibidea: Indusiko San Fraisku jaiak urrietan izaten dira.

ERETXIA

Gero, gerokoak

Independentziari buruzko erreferendumean, Eskozian ezezkua nagusitu da. Euskal Herriko eta Espainiako hedabideetan kontrako albisteak irakurri doguz. Erreferenduma baino lehen, euskal hedabideetako lehen albisteak izan zan. Erreferendumen emoitza jakitera emon ziranean, Espainiako hedabideak gaiari arreta osoa eskeini eutsien. Bien bitartean, Europar Batasun barruko "balkanizazioaz" berba egin zan. Europa erdiko 1990eko gerra zibilagaz mehatxatzen gaitue. Soviet Batasuna jaustean, Jugoslavia izandakoan langile eskakizunak areagotu ziran unean, hain zuzen, nazino barrien eraikuntza konponbideztat jo eben. Holan, gainerakoak ez legez, jentarte justuagoa sortzeako estadia eregi ahal izango eben. Guda krudelaren ondoren, hainbat estadiu sortu ebezan, baina ezin izan dabez eskakizun sozialak gelditu. 2014ko zezelean Bosnia-Herzegovinako Tuzla herrian gobernuaren aurkako herri mobimentua abiatu zan barriro, estadiu urte luzeetan ez ebezalako zenbait langileren Gizarte Segurantzaren kotizaziorik ordaindu.

Eskozian, ostera, petrolioa topatzeagaz batera, nazino askapenerako aldarria zabaldu zan. Horregaitik, independentziaren aldeko argudio nagusia eskoziarren egoera sozio-ekonomikoa hobetutea izan da. Hizkuntzeak ez eban garrantzirik. Propagandan be ez eban lekurik, gerora, independentzia lortutakoan, hizkuntzearen egoera hobetuko leikielakoan. Katalunian be argudio ekonomikoak erabili ditue, independentziarako bidea hartzeako. Espainiatik kanpo, aberatsagoak izango dirala azaldu dabe. Prozesuak aurrera egiteko, eredu ekonomikoaz ebatzirik ez hartzea ezinbestekoa da, bide horretan burgesiak eta langileak alkarreagaz joan behar dabelako. Ezer zehaztu bitartean, baina, CiU-ren



MARIA GONZALEZ
Kazetaria

eredu neoliberal aurrera doala salatu dabe zenbait ezkertiarrek. Gerora adostu beharrekoa, beraz, murrizketen politikeagaz jarraitutea edo beste konponbide ekonomiko justuagoa bilatzea izango da.

Europar Batasun barruko independentziarako ekimen horreek estadiu hegemonikoen gaitzespena ekarri dabe, Europar Batasunaren aldeko aldarria eginaz. Europaren proiektuak aurrera egin dagian, estadiu Bruselari eskumen gehiago emon behar eutsienean, ordea, espainiartasunaren esentziari eusteko zerga sistemea, adibidez, oinarrizkotzat jotzen dabe. Beraz, oraingo estadiu ez dabe estadiu barririk sortzea gustuko, baina horren aurka egiteko erabilten daben argudioa ez dabe hareek be eurentzat gura.

Estadugintza prozesuak, estadiu sortu eta gero, euki gura dogun herria izango dogula aditzera emoten dau: eskoziarrak, sozialagoa; katalanak, aberatsagoa; euskaldunok, euskalduna. Helburua euskeraz bizitea da. Independentziarako bidea abiatzean, gure eguneroko bizitza hobetuteko erantzukizunetik askatzen garala emoten dau, gerora lortuko dogulakoan. Baina bidea pausurik pausu egin behar dogu. Gure eguneroko bizitzak amesten dogun geroa irudikatu behar dau, geroa gaur eregiten hasten dalako.

LUMATUTEN

MAIALEN
MADARIAGAIspilutxo,
ispilutxo...

Badirudi gaurkoan euriaren hotsa desbardina dala, goizeroko kafearen mikatza ez dala atzokoa, ordenagailuko teklen laztana arrotz dodala. Gelako lau hormen zuria aldatu egin dala iruditzen jata, ametsak ez dodaz nire sentidu. Gaurkoan zure begiradea be ezezagun sumatzen dot. Zure egunonak ez dira betikoak.

Une batez deseroso sentidu naz mundu arraro hareri begira, larri, eusten nauan zoru irmoaz be mesfidati. Ezin izan dot gehiago itxaron eta aspaldiko partez bisitea egin deusat.

Bera be aldatu egin da. Gaurkoan gardenago dagoala dirudi, lurrin arrastoi lekuri itxi barik.


Erakutsi deustan isla lausoa adi behatu dot, begirada galduak berba egin dauan arte. Ninien tristurea eta umeltasuna dira nagusi, besoetan kabituten

ez diran ardura eta betebeharrak gainezka egin dabe eta. Bekokia tximur ageri da, freskotasun eta amets barrien faltan. Ezpain hotz eta apal hareek damu dira; denpora faltearen atxakia merkea sarriegi erabili dabela aitortu dabe, benetako arrazoi barik, eguneroko ohitura eta beti izandako gogoak iraganean baztertu dituela esanaz.

Ez dot gogoko espiluak erakutsi deustan errealidadea. Baina, aldi berean, harro sentidu naz goizean kafea hartzeaz eta behingoz bere aurrean planteteaz, esan beharreak entzuteko adorea bildurik. Gaurkoan espilua izan dot hausnartuteko geldiune, bizitzearen maratoin eta iparrorraz, egiteko eta eginbeharren arteko ekaitzean.

Holan kafeak mikatz izaten jarraitu dau eta zuriak zuri. Ordenagailuko teklak laztantzera be hurbildu naz, goizeko deserosotasuna aldatu dan frogatu nahian. Leun dihardue ordea, betiko moduan, barri usaina jariatzen dabelarik. Ha ta guzti be, gustau egin jata eta idatzi egin dot, aspaldiko partez atzen argi printzak orria abandonau arte idatzi. Eroso sentidu naz, ilusinoak jaramon egin deusta, espiluaren kritikak entzuteak merezi izan dauala onartuz eta baloratuz. Izan be nok ez dau zoriontsu izan gura?

ZERTZEAN



ITSASO BENEDICTO



BEGI TXINDORRA

Beste hamabost egun etxon beharko dabe Argazki Lehiaketan parte hartu dabenak jakiteko zein dan argazki saritua. Izan be, aurten BEGITUR urri lehenengoaren 10era arte luzatuko dau argazkiak aurkezteko epea. Batek baino gehiagok bialdu dauz argazkiak atzen momentuan eta honeek kanpoan ez itxeko eta jente gehiago animau daiten hartu da ebatzi hau.

Parte hartzeako, partaide bakotzak gehienez 3 argazki bialdu behar dauz, bakotxa bere tituluagaz eta non dagoan aterata esan behar da. Argazkiak 2014an ateratakoak izan behar dira eta begitu@topagunea.com helbidera bialdu behar dira. Saria persona birentzako astegoi bat landetxe baten izango da.

Argazki sarituz gainera beste hainbat be erakutsiko doguz hurrengo zenbakiko erdiko orrialdeetan.

Gaur hona ekarri doguna, "Itsasoan marea biziakin batera, Gorbeian be egusenti ederrak" serieko argazki bat da. Argazki hau Unai Urutxurtuk bialdu dau eta egusenti eder horreen lekukotasuna itxi dau BEGITUN.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarribia

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Blokaia
T. 94 631 50 39
Kalegora Zerbaita 100
R.P.S. 21/06

FISIOTERAPIA Grupo Sasobide
Balneario Areatza

Tania Fernandez Santiago
COL. 1718

www.gruposasobide.com Tel.: 94 657 54 50

ZEBERIO

Lehen sektorea bultzatzeko bigarren jardunaldiak



Haziak trukatzeko aukerea egongo da jardunaldiotan.

Zeberio Udalak lehenengo sektoreari eskeinitako bigarren jardunaldiak antolatu ditu, urri bigarrenaren lehenengo bariku-zapaturako. Hazien ezagutzea zabaltzeko eta haziak trukatzeko aukerea emongo deutse baserritarrai aurtengo edizinoak. Jardunaldietan, berbaldiak, bideo emondia, hazien azokea eta Zeberio Nekazalgunean garatzen dabizen proiektuen aurkezpena egongo dira.

Erredakzioa

Zeberio "bere sustraietatik" eragiteko asmoagaz sortu ziran igaz jardunaldiak. Hareen ostean apustu sendoa egin dau Udalak lehenengo sektoreko proiektuak bultzatzeko eta harrezkeru, hiru proiektu sortu dira eta martxan dagoz. Laugarren baterako be lur

bila dabil udala. "Deialdi bi egin ziran. Lehenengora proiektu bakarra aurkeztu zan, Basortu izenekoa. Lau lagun dagoz bertan eta orain konserbera bat zabaldu gura dabe. Euren esperientziaren barri emongo dabe hilaren 4an, zapatuan. Hurrengo deialdian jente gehiago aurkeztu zan eta beste proiektu bi ipini dira martxan"

azaldu deutso BEGITURI Ana Belen Alberdi Zeberio alkateak. Badago beste proiektu bat, lur sail handiak behar dituana, sagarra sartu gura dabelako eta udalak ez daukala hain lur sail handiak dino alkateak. Dana dala, udalaren bitartez lur bila dabiz proiektua aurrera atera ahal izateko.

Haziak...

"Haziak eta ezagutzak trukatzuz" izeneko edizino honetan, euren hazien gaineko ezagutzak eta haziak eurak alkartrukatzeko aukerea izango dabe nekazari agroekologikoak.

Lehenengo saioan, berbaldi bi eta barauskarria egongo dira. Agroekologian erreferente dan Arantza Arriek "Hazietatik nekazaritza berreraikitzen" izeneko berbaldia emongo dau barikuan, hilak 3, arrastiko seiretan. Ondoren Zeberio baserritarren parte-hartzeagaz egindako bideoa, Bertoko haziak eta jakintzak izenekoa, ikusi ahal izango dabe hurreritzen diranak.

Hurrengo egunean, Nekazalgunean garatzen dabizen proiektuen eta Basortu Elkartean konserberearen aurkezpena egingo dabe Nekazalgunean. Eta ondoren Hazi Azokea izango da. Azoka hau, trukaketa azokea dala, haziak alkartrukatzeko baina ez saltzeko dino Alberdik. Hazien erakusketea be egongo da azokan bertan eta hazien ezaugarriak komentetako aukerea izango dabe ekoizleak eta jakinminak bultzatuta hurreritzen diranak. Norberak eroandakoak be ipini ahal izango dira erakusgarri edo trukatzeko erabili.

...ereiten

Igazko jardunaldiak arrakastatsuak izan ziran eta aurtengoak arrakastatsuak izateko aukera handiagoa daukiela uste dau alkateak, proiektu batzuk abian dagozalako daborduko. Jardunaldien helburua ez da jente asko batzea, baina bai, bertako ekoizleak edo proiektu bat daukienak, foro bat topatzea, zailtzak argitu eta aurrera egiten lagunduko deusena.

LEMOA

Aurrekontuetan parte hartzeako metodologia aldatu dabe

Erredakzioa

Lemoako Udalak 2015 urteko aurrekontuak diseinetako prozesu parte-hartzailea abian ipiniko dau, herritarren berbea kontuan hartu eta lehentasunak marketako asmoz. Aurreko urteetako bideari jarraitu arren, metodologian barrikuntza batzuk egingo ditue aurtent Lemoan.

Holan, herritarren ekarpenak jasoteko komunikazio bide barri bi zabaldu dira. Alde batetik, telefono mobikorreterako diseinatu barri dan aplikazioa, eta bestetik, herrian zehar ipini diran gutunontziak. Ekarpene honek, urri bigarrenaren 30a arte egin ahal dira

eta hilaren 30ean eta 31n udal ordezkariak gutunontzietatik igaro eta iradokizunak jasoteaz gainera, herritarren ekarpenak zuzenean be jasoko dabez.

Ondoren, ekarpen fasean jasotako guztia aztertu eta sailkatu egingo dau Udalak, aurrekontuen proposamen zirriborroa prestatzeko. Dokumentu hori herri batzar zabal baten aurkeztu eta eztabai-datuko da, behin betiko proposamena onartzeko. Herri batzarrean onartutako behin betiko proposamena udalbatzan bozkatuko da.

Metodologia hau "Lemoatik eta lemoaztarrentzako planifikau" dala dino Aitor Erauzkin zinegotziak.

IGORRE

Goi-tensinoko linearen kalteen gaineko berbaldiak



Erredakzioa

Gueñesetik Ezkio-Itxasora doan goi-tensinoko linearen proiektua aurrera doa eta Igorre Bizirik talde ekologistek berbaldi bi antolatu ditu honen kalteen barri emoteko. Lehenengoa hilaren 2an izango da, Urkuzuko txokoan eta han, Osalde Osasun Eskubidearen aldeko alkarteko kide batek goi-tensinoak osasunari egiten deusazan kalteen gainean egingo dau berba. Hurrengo egunean, hilak 9, ingurumeneko ikerketak egiten dabezan Icarus enpresatik etorriko da hizlaria, goi-tensinoak txoriai egiten deuszen kalteen gainean berba egiteko. Berbaldi hau Igorreko Kultur Etxean izango da. Berbaldi honek Igorre Bizirik-

en helburua "gaia mahai gainean jartea da eta auzotarren artean ahanztura ekiditea. Proiektua hor dago eta egin egingo dabe linea hori" dino.

Goi-tensinoko linea

Gueñes eta Itxaso arteko goi-tensinoko lineak 4.000 voltako tensinoa izango dau eta Bizkaiko 17 herritatik pasauko da; tartean, Zeberio, Bedia, Lemoa eta Igorretik. 2011n, hainbat udalek proiektu honen kontrako herritarren alegazioak aurkeztu ebezan, baina momentu honetan Bizkaian erantzun handirik ez dago. Gipuzkoan eta Nafarroan, barri, herri ekimen hau indartsu dago eta urri bigarrenaren 18an manifestazioa egingo dabe Donostian, goi-tensinoko linearen kontra.

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak
Igorreko Industrialdea
Pab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia


FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa - Fiskala - Lanekoa - Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

HERRIKO BENTAK
HOSTAL
HERRIKO PLAZA,
48142 ARTEA (Bizkaia)
Tel. 94 631 72 56

24h
EGUNEKO OGIA
vending pan
IGORRE
Lehendakari Agirre

ARRATIA

San Migel
Altzutan, San
Fresku Indusin

Indusi.

Erredakzinoa

San Migel urri lehenengoaren 29an ospatzen da, baina Zea-nurin izenpe horretako ermita bi dagoz, bata Uriben eta bestea Altzutan. Bigarren honetan egunaren osteko astegoienean ospatzen dabez San Migel jaiak; hau da, urri bigarrenaren lehenengo zapatu-domekan. Zapatuan, hilak 4, kofradien arteko Bola Txapelketea jokatu da Altzustako bo-

lalekuan, eta parrilladea be egingo dabe auzunekoak hurrengo egunean.

Indusin, barriz, San Freskuak ospatzen dabez oraingo hileko lehenengo astegoienean. Izan be, Asisko San Franzisko eguna urri bigarrenaren 4a da.

Aikomen, Indusiko jaietako egitaraua:

Urri bigarrenak 3, barikua
16:00etan, Briska Txapelketea.
18:30ean, herri kirol desafia.
19:30ean, txixi-burruntzia.
21:00etan, erromeria.
22:00etan, txokolatea.

Urri bigarrenak 4, zapatua
12:00etan, mezea.
12:30ean, bertsolariak: Mañukorta eta Areitio.
13:30ean, kopaua.
14:30ean, Baba Lapiko Lehiaketea.
17:00etan, Dimako Gazte Barri jantza taldearen emonaldia.
17:30ean, umeentzako ekintzak.
19:30ean, Berakatzopa, Tortila eta Ogizko Tostada Lehiaketak.
22:00etan, erromeria Jainaga eta Narbaizagaz.
22:30ean, auzokoen antzerkia.
23:00etan, Mozorro Lehiaketea.
23:30ean, txokolatea.
00:00etan, zozketea.

IGORRE

Animazinoa
eta jantza Eale
alkarteagaz

Ealekoak Inbiu Egunean.

Erredakzinoa

"Guk euskaraz" kantuagaz hasi ziran Inbiu Eguneko ekitaldiak. Kantu hau, rock eritmoan kantau beharrean, salsa eritmoan kantau eben Luis Iruarizaga Abesbatzakoak eta eritmo horretan egin eben jantzan Eale alkaratekoak. "Elegante geratu zan" dino Cristina Zuberu alkaratekoak. Gero "Arabian bagare" baltsean jantzatu eta jentearen txalo zaparradea jaso eben.

Inbiu Egunean edade guztietako igorretarrak jantzan egitera animau ebezan, baina Eale alkaratek, (Egoitzetarako Animazino Lagunen Elkarte) orain arte nagusien egoitzetara eroan dau animazinoa. Country, baltseak, saltsa... edozein eritmo jantzatzen dabe Ealekoak.

Zahar egoitzetan jantzan

Gai bat hartuta, ikuskizuna antolatuten dabe egoitzetan jentea jantzan egiten animetako. Hilaren 11n Dimako egoitza bietan egongo dira eta 12an Bediakoan. "Bisita baxotxerako Igorreko loradenda batek lora sorta bat emoten deusku. Ikaragarri eskertzen dogu hori" dino Zuberok.

DIMA

Yoga, Pilates
eta Eskulanak

Erredakzinoa

Hilaren 7ra arte dago zabalik matrikula epea Dimako Udalak antolatutako ikastaroetan parte hartzeako. Ikastarook ikasturte osokoak dira, urri bigarrenan hasi eta maiatzera arte izango dira. Taldeak martxan ipinteko, gixtienez 8 personak emon behar dabe izena. Yoga eta Eskulanak ikastarook goizez izango dira; Pilates, barriz, arrastiz.

LEMOA

Mobikortasun Plana abian

Erredakzinoa

Lemoako Udalak herrirako behar dan mobikortasun-ereduari buruzko gogoetea egin gura dau, gaur egun diran garraio moduen erabilera orekatua jasoko dauan plangintza eginaz eta lortu gura dan bizi-kalidadeagaz bat egingo dauana. Hori dala eta, Mobikortasun Plana egingo dabe Lemoan lehenengoz. Horretarako, arlo horretan espezializautako Endara Ingenieros Asociados S.L. aholkularitza enpresea kontratauko dau Udalak.

Hori dala eta, urri lehenengoaren 25ean batzar bat egin eben planaren barri emoteko, herrian dagozan arazoak eztabaidatzeko eta lemoaztarren proposamenak jasoteko. Proposamen horreekaz diagnostikoa egin

eta zemendiaren 6an, diagnostikoa eta proposamenen aurkezpena egingo dabe. Plan definitiboaren aurkezpena abenduan egiteko asmoa dago.



Lemoa.

ARRATIA

Mendira joaterako orduan,
arduratsuak dira inkesteari
erantzun deusienak

Erredakzinoa

Eguraldi iragarpenari begiratu joaten dirala mendira esan dabe geure inkesteari erantzun deusien % 89k eta beste %11k batzuetan begiratzen deusiela eguraldi iragarpenari erantzun dabe. Inork ez dau erantzun eguraldi iragarpena jakin barik abiatzen dala mendira.

Konsumoaz galdezka

Aspaldi honetan, konsumitzaileak konfidantza handiago daukiela eta konsumoa hasi dala apur bat gora egiten irakurri dogu prensan. Igaz baino hipoteka gehiago be egin ei dira. Oraingoko itauna hauxe da. Zelan ikusten dozu zeure ekonomia? Orain urtebete baino...

- hobeto.
- bardin antzera.
- okerrago.



IGORRE

Aukeren azoka txikerra



AME Egunean Igorreko merkatariak.

Erredakzinoa

Arratiako Merkatarien Elkarteak (AME), Aukeren Azoka txiker bat antolatu dau hilaren 4rako. Igorreko Kultur Etxean izango da eta kirol erropak eta oinetakoak modu onean erosteko aukerea izango da bertan. Goizeko 10:00etatik, iluntzeko 20:00ak arte egongo da zabalik. Eguraldi txarra bada, udaletxeko arkupetan izango da.

Aurreko ekitaldien balorazio ona

Igorreko Inbiu Egunean be parte hartu eban AMEK. Merkatariak Alkarte Azokan egon ziran fruta-

brotxeta batzuk eskeintzen eta arrastia animetako Jokaldi taldea ekarri eben. "Jentea hain ondo pasetan egoan, hamarrak arte luzatu zala erromeria, bederatzirak arte hitzartuta geunkan arren" dino Leyre Fernandez AMEkoak

Urri lehenengoaren 13an alkarateak bere eguna ospatu eban. Ekitaldiz betetako eguna izan zan, eta arrakastarik handiena, akaso, atun pintxoak euki eben. 900 pintxo banandu zirala dino Fernandezek eta "eder-ederrak egoazan". Xaibor-en kontzertua be ikusgarria izan zala dino eta sano balorazio ona egiten dabe merkatariak.

ARANTZAZU

Zuberoako Maskaradea sanfaustoetan

Erredakzioa

Gaztedi Dantzari Taldeak Arantzazun antzertuko dau Zuberoako Maskaradea lehen aldiz plazaratu ebeneko hogeitun urte beteten diranean. Euskeratuaz zein bizkaieraz izango da eta 40 lagun inguruk hartuko dabe parte. Gainera, urtero lez, herri afaria izango dabe Arantzazukoak frontoian eta ostean, erromeria.

1994ko maskaradeak, maskaradak dituan osagai guztiak bildu ebazan: jantzea, antzezpenak, sermoiak, koplak eta abar, eta arrakasta handia izan eban. Aurten proiektua berbiztea eta plazaratzea ebatzi dau taldeak, egungo egoerara egokituta eta barrikuntza batzuek. Bersino barri hau ekarriko dabe Arantzazura, hilaren 11n.

Gaztedi Dantzari Taldea Santutxukoa da eta Bilbon, Zamudion, Baionan eta Zuberoako Zalgize herrian antzertu dabe maskaradea Arantzazura ekarri baino lehen.

Aurtengo Ugel Txapelketeak igazko botea izango dau

San Fausto Jaiak Ugel Txapelketeagaz hasiko dira. Bigarren urtea da hau antolatuten dabena Arantzazun eta sariak bikoztu egin dira. "Igaz inork ez eban Ugel Txapelketea irabazi. Lehengo saria 50 euro zan, eta bigarrena 20 euro. Eta emon barik geratu zan diru hori aurtengoari gehitu deusagu. Holan, lehengo saria 100 euro izango da eta bigarrena 40 euro" azaldu deutso BEGITURI Begoña Llano Arantzazuko alkateak.

Egitaraua

Urri bigarrenak 11, zapatua

12:00etan, II. Ugel Txapelketea.

16:00etan, Zuberoako Maskaradea. Gaztedi taldeagaz. Barrikadak Arantzazigoitik hasita.

18:00etan, ofizioak herriko plazan.

20:00etan, herri afaria frontoian. Afalostean erromeria.

ZEANURI

Itxasu, Ezpeleta eta Donostia bisitauko dabez Zeanuriko parrokiakoak



Ezpeleta.

Erredakzioa

Zeanuriko eleizarrak eskursinoa egingo dabe urri bigarrenaren 11n.

Lehen bisitaldia Itxasu herria ikusteko izango da. Bertan izango dabe zain Peio Ospital kantaria gidari lanak egiteko. "Aukerea ez da izan kapritxo bat. Zeanuriztarrek bertako kanposantuan daukie lurperatuta seme kutun bat: Don Alejandro Sagarna" azaldu deutso BEGITURI Arratiako Eleizak. Alejandro Sagarnak gerra denporan Iparraldera iges egin beharra euki eban eta Errigoitiko parrokoa izan zan.

Gidari lanak egingo dauan Peio Ospital kantaria, Pantxoa eta Peio bikoteko kidea da.

Herria ikusi, lore eskeintzea egin eta hamaiketako jan ostean, Ezpeleta ikusiko dabe bisitariak Donostian bazkaldu aurretik.

ARRATIA

Mankomunidadeak ez ditu igoko tasa eta prezio publikoak 2015erako

Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunidadearen Osoko Bilkurak, urri lehenengoaren 24an egindako batzarrean, onartu ebazan 2015ean ezarriko diran tasa eta prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskalak. Onartutako ordenantzen arabera, etxeko hondakinak eta zaborra batzeko zerbitzuagaitik, etxeko laguntza zerbitzuagaitik eta Diman dagoan "Arratiako Egoitza" egoitza zentroan eta eguneko zentroan laguntza zerbitzuak emoteagaitik 2014an ezarritako prezioak bere horretan mantenduko ditu.

Mankomunidadea osotuten daberen udaletako ordezkariak ago batez onartu eben erabagia, AUMK

tasa eta prezio publikoak urtero eguneratzeko erabilten dituan erispideakaz bat etorritz.

Era berean, Osoko Bilkurak Arratiako udalerri guztietan etxeko konpostaje zerbitzua hobetuteko proiektuaren harrerea, prestakuntzea eta jarraipenerako kanpaina enpresa espezializatu bateri esleitzea onartu eban, aurreko urteetan egindako ekintzen jarraipen lez.



IGORRE

Bizkaiko baserriko produktuak Garbeko Azokan

Erredakzioa

Hilaren 12an, Garbeko Azokan Arratia, Otxandio Orozko eta Bizkaiko baserrietako produkturik onenak egongo dira salgai. Berrogei salmentan postu inguru egongo dira aurtun eta bertan ortuariak, gaztaia, eztaia eta sasoi honetan baserriak emoten dauna erosteko eta dastatzeko aukerea egongo da. Azoka inguruan, trikixak ipiniko dau jaigiroa.

Garbeko Azokea 1975ean sortu zan eta Bizkaiko antxinakoenetakoa da. Hasikeran, ganadu azokea zan, baina laster baserriko produktuak saltzeko azoka bihurtu zan, eta ortuariak hartu eben protagonismo nagusia. Atzen urte honeetan gaztai asko eta ogi aukera handia egoten dala, eta aurtun be holan izango dala dino Ramon Urkiza antolatzaileak. Artisautzeak be bere lekutxo izango dau Garbeko Azokan.

DIMA

Ertzaintzak sei gizonetzko atxilotu ditu hiru adingabe jipoitu eta umilatzeagaitik

Erredakzioa

Durango Ertzain-etxeko agenteak sei gizon atxilotu ebazan urri lehenengoaren 28an, hiru adingabe legez kanpo atxikitzeagaitik. Gazteak mehatxu egitea eta lapurtzea be egotzen jakie atxilotuak. Hiru gazteak jipoitu eta umilatu ostean, erropa barik itxi ebazan Dimako baso baten.

Ertzaintzaren iturrien arabera, zapatu arrastian, Bilboko Abandoko autobus geltokian autobus

bat hartu eta Dimara abiatu ziran hiru gazte. Bertara ailegauta, gaua heldu arte etxon eben hiru gazteak, eta, 20:30ak jota zirala, marihuana plantazino bat lokalizatu eukien baserri batera joan ziran. Txarrantxadun alanbre hesi bat zeharkatu ostean, adingabeak baserriko lurretan egoan negutegian sartu ziran. Jarraian, hainbat marihuana landare ostu ebazan bertatik. Oinez Dimarantz itzultzen joiazala, gazteak lur orotariko ibilgailu bat euren atzetik segika

ebela konturatu ziran. Egoera ikusita, gazteak galapan iges egin eben; baina, ibilgailuan joiazan gazteetako bat harrapatu eben. Halan, jipoitu eta ibilgailuan sartu eben eurekazo eroanez. Marihuana ostu eben beste gazte biak, autobusa hartu eben Bilbora itzultzeko. Minutu batzuk geroago, gazte biak euren lagunaren telefonotik egindako dei bat jaso eben, eta, Lemoan autobusetik jaisten ez baziran, ondorio guztiak lagunak ordainduko ebazala ohartarazo eutseen. Mehatxuak ikusita, gazteak Lemoan autobusa itxi eben, eta, jarraian, gizonetzko bik ibilgailu baten hartu ebazan. Adingabeen motxilak ibilgailuan sartu ostean, guztiak be marihuana plantazino egoan baserrirantz abiatu ziran. Baserrian, lur orotariko ibilgailua eukien zain, eta, bertatik, sei la-

gun jaitsi ziran, guztiak be arpegia euren kirol jertseen kaputxeagaz estalita eukiela. Ibilgailutik jaitsitako lagunak gazteak jotzen hasi ziran. Eraso horren ostean, gazteak lur orotariko ibilgailuan sartu eta San Lorentzoko ermitearen inguruetara eroan ebazan; bertan, barriz be jipoitu ebazan. Jarraian, hainbat baso pistetatik ibili ostean, gazteak baso batera eroan ebazan, eta, bertan, biluztera behartu ebazan. Behin erropa barik, gazteak euren datu personalak eta telefono mobikorren pasahitzak emotera behartu ebazan. Azkenik, gazteak basoaren erdian itxi ebazan, alde aurretik gertatutakoa salatzen baeben hil egingo ebazela mehatxatuta. Gazteak mendian nora ezean ibili ziran ordu biz, atzenean kanpaldi bat egiten egoan talde batez topo

egin eben arte. Honeek erropak itxi, eta, adingabeak Ertzaintzagaz ipini ziran hartu-emonetan. Ertzaintzak Durango anbulatoriora eroan ebazan badaezpada osasun arreta jasoteko, hasikera baten zauriak arinak zirala bazirudian be. Gazteak erasotzaileen deskripzioak emon eutseezan eta suzko arma batez mehatxatu ebazala jakinarazo eutseen. Durango ertzain etxeko agenteak ikerketea egin eben eta sei lagun atxilotu ahal izan ebazan Ertzaintzak hiru gazteak legez kanpo atxilotzea egotzita. Gazteak mehatxatzea eta lapurtzea be egotzi deutsee atxilotuak. Horrezaz gainera, agenteak jaurtigairik bako errebolberrera be atzeman eben. Ertzaintzak edegita dauka oraindino ikerketea eta atxilotu gehiago egitea ez dau bazterten.

MAITANE OLATZ BILBAO ETA XABIER SAGARNA

"Ebitau daitekezan gaisotasunez hiltzen diran umeen izenak eta arpegiak ezetu doguz Nigerian"

Maitane Bilbao eta Xabier Sagarna Areatzakoak Nigeriako ume bat adoptatu dabe. Martian joan ziran Lagos-era ume bila, baina asignautako umea ezin izan eben adoptatu eta hiru hile eta astebete egin behar izan eben bertan beste ume bat esleitu arte.

Denpora horretan Nigeriako umezurtzen egoeraren barri euki eben hur-hurretik. Nigeriako umezurtzentzat egunerokoa burruka latza da, eta asko dira hiltzen diranak goseak, beherantzakoak edo malariak jota. Errealidade gordin honen gainean egin dabe berba BEGITUGAZ.



Maitane Olatz Bilbao eta Xabier Sagarna umeagaz.

har jakoz.

Han gengozala lege barri bat aprobau zan. Lege horren arabera adoptatu behar ziran ume guztien ikerketa bat egin behar zan adopzioa legala zala bermatuteko. Espainiko Kotsuladuak gure dokumentuak ikertuteko hiru hilabete eskatuten ebazan, artean umea umezurtzean itxiteko esanez. Hori izan zan batez be, egonaldia luzatu euskuna.

Lege aldaketa hau onerako ala txarrerako izango da?

M.B.: Ona da bermatutea legala dala, bai gurasoentzako, baita umeentzako be. Ezin dana da inbestigazio honek ipintearren, umeak hiru edo lau hile gehiago egotea umezurtzearekin, han dagoan egoera oso txarra dalako. Eta batzuetan pasetan da, hiru hile horreetan umea gaisotu edo hil egiten dala.

Zelango egoeratan dagoz adopzioan emoteko dagozan umeak?

M.B.: beharizan handia dago. Nigerian umezurtze asko dagoz, bazter baxtean bat, baina kallean be ume asko dagoz. Oso oso egoera gogorra da umeentzako. Babes falta handia eta umezurtze baten izateak ez deutse bizi iraupena bermatzen.

X.S.: Familiak be ikusi doguz eta han ikusi dogu umea dala arin pasau behar dan sasoa. Kaleko ume asko dagoz, 6 urtetik aurrera neba-arreba lepora estututa, merkantzia buruan kaminoan saltzean dabizanak. Horreetako gehienak etorkizun baltza daukie: mutilak armak eta neskak prostituzioa.

M.B.: Umezurtzeak nongura, umeak hainbat gura. Bertako hiru hilabeteak askorako emon dabe

Laburra, adopzio munduan dabizenentzat.

Baina gero, han Lagosen, gauzea uste baino gehiago luzatu zan, ezta?

M.B.: Bai. Martian joan ginan hemetik. Printzipioz lau asteko egonaldi bat egiteko: gure umea izango zana hartu, atzenengo papalak egin eta bueltetako asmoz, baina hainbat konplikazio suertatu jakuzan, danak batera, eta luzatu jakun egonaldia hiru hile eta astebetara arte.

Lagosen egon zinien bitartean non hartu zenuen ostatu?

X.S.: Familia baten etxean.

M.B.: Familia horrek adoptanteak hartzean ditu adopzio agentziaren bitartez. Eurak dirutxo bat jasoten dabe holan. Danimarkako beste bikote batek eta Frantziako beste batek egon ginan. Polita izan zan alkar ezagutzea.

Zergaitik luzatu zan hainbeste egonaldia?

M.B.: Asignazio batek joan ginan, baina asignazio horrek fallau egin eban, umea ezin izan genduan adoptatu eta han gengozala beste proposamen bat egin euskuen. Prozesua zerotik hasi behar izan genduan eta horrerik Espainiako konsuladuak euki genduzan problemak gehitu be-

Erredakzioa

Adopzio prozesua noz hasi zan eta zergaitik aukeratu zenuen Nigeria?

X.S.: 2012an hasi ginan adopziozko ikastaro eta beharrezko prestakuntzeagaz Bizkaiko Diputazioan. Kursoak egin bitartean Nigeria aukeratu genduan, bertan adopzioa beharrezko garantia eta gardentasunagaz egiten dalako.

M.B.: Urte biko prozesua izan da.

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04

Olaetxe
Graduazinoak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gibusua
- Begiko tentsioa
- Lentillen adaptazioa
- Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

Gure Ikastetxeak
Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urtetik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikola

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 45 Faxa: 94 673 90 45 Artea

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zikloak

eta gogorrena errealidade horregaz bizitea izan da, jakinda ezin dogula egindakoa baino gehiago egin. Ondino grabauta daukat 6 urteko neskatxi batek zelan opatu eban bere burua gure umea ja-gongo ebalatzen eta geugaz eroateko esanez. Sukaldateko ebalatzen eta etxea garbituko, baina eroateko. Edo zelan zerbitzari batek bere mutikoa gure alabeagaz ezkontzea opatu euskun, Europan txarto bada be bertan baino hobeto biziko zalakoan.

Malaria euki ahal da kontrolpean eta goseagaz amaitu ahal da, baina borondate politikorik ez dago. Ez Nigerian, ez mundu mailan, ezta?

M.B.: Nigeriako errealidadea kontraste handikoa da eta jente gehiena egunean, euro bategaz baino gitxiagotik bizi da, petroliotik ateraten dabizen diruagaz gitxi batzuk aberastuten diran bitartean. Eta sei-bederatzi ume daukiezan familietan gosea ikusten da.

Hain urrin ikusten genduan hori, hiru minuturo ume bat hiltzen dala malariak jota, lau minuturo goseak... hori bete egiten da.

Hain esperientzia gogorrek markau egin zaitue?

M.B.: Argi daukagu traba burokratikoaren gainera umeakaitik merezidu dauala eta han bizi izandakoa bizitza osorako grabauta geratuko jakula. Atzen baten medioetan entzuten diran datuak arpegia eta izena ipini deutseguzalako eta hori ezin dalako hain errez ahaztu. Politika mailan ikusita herrialdeak daukan garapen maila eta korrupzioa eta abar nik esperantzea galduta daukat eta ez dot pentsetan konponbide bat dagoanik epe labur batera. Baina beti segidu egin behar da burrukan eta pentsetan, zeozer hobea lortu ahal dala.



Nigeria

Izen ofiziala: Nigeriako Errepublikak Federala.

Azalera: 923.768 Km².

Mugak: Nigeria mendebaldeko Afrikan dago, Gineako Golkoan. Hegoaldean muga egiten dau Ozeano Atlantikoagaz; mendebaldean, Benin-egaz; iparraldean, Niger eta Chad-egaz eta ekialdean Camerun-egaz.

Uriburua: Abuja.

Beste uri inportante batzuk: Lagos eta Port Harcourt.

Hizkuntzak: hizkuntza ofiziala ingelesa da, baina ehundaka hizkuntza dagoz Nigerian: hausa, yoruba eta igbo, barbarako.

Moneta: Naira.

Estadu errea: Errepublikak federala da. 1999tik konstituzino demokratikoa dauka baina oso prezidentzialista.

Populazinoa: 167.000.000 (2012ko abenduko datu ofiziala); 158,4 milioe PNUDen arabera.

Biztanle-dentsitatea: 180 biztanle/km².

Per capita errentea: 2.700 Ameriketako Estadu Batuetako dolar.

GINiren koefizientea¹ (desbardintasuna neurtutekoa): 48,8 (PNUD 2013).

Analfabetismo tasea: % 38,7 (PNUD 2013).

Giza Garapen Indizea: 0,504 puntu. Herrialdea 154. postuan dago.

Bizi-itxaropena: 52,12 urte.

Jaiotza-tasa: 41,53 ‰.

Heriotza-tasa: 13,48 ‰.

Ugalkortasun-indizea: 6 ume andra bakoetako.

Iturriak: Espainiako Gobernuo Kanpo Arazo eta Lankidetzako Ministerioo Informazino Diplomatiko Bulegoa eta datosmacro.com.

¹ Estadistikan, Giniren koefizientea errentearen desbardintasunaren neurketarako eta beste aldagaien konzentrazioa neurtuten dauan koefiziente bat da. Giniren koefizienteak erabateko bardintasuna adierazoten dauan Oitk erabateko konzentrazioa adierazoten dauan 1era bitarteko balioak hartzen ditu; holan, zenbat eta handiagoa izan, banaketan orduan eta kontzentrazio edo desbardintasun handiagoa dagoala ondorioztatzen da. (Wikipedia).

Herrialderik igualitarioena Noruega zan (0, 227) Espainiako 2012an 0,350koa zan, Nigeriako 0,488.

Zelan egiten da nazinoarteko adopzinoa?

Gure herrialdean agintari judizialak daukie adopzinoak eratzeko eskumena eta, Espainiatik kanpo, konsul espainiarrak eta adopzinoak gauzatzen diran herrialdeetako agintari judizialak daukie eskumena.

Adin txikikoaren jatorriko herrialdeak bere betekizunak ezartzen ditu.

Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumen eta ardurak

Honeek dira BFaren eginkizunak:

1. Informazinoa emotea, eskariak jasotea eta izapide-tzea, bai zuzenean edo ziurtatutako erakunde bidez (NAEL: Nazioarteko Adopzinoarako Erakunde Laguntzai-leak).

2. Egoki bada, egokitasun ziurtagiria emotea, adopzinoa eskatu daben azterketa psiko-sozialean oinarrituta.

3. Adopzinoaren jarraipena eta kontrola egiteko konpromiso-agiria emotea.

Nazinoarteko adopzinoa herrialde honeetan egin daiteke:

Adopzinoa "bide publikotik" tramitautu herri honeetan: Albania, Bulgaria, Txile, Txina, Kolonbia, Costa Rica, El Salvador, Honduras, Letonia, Lituania, Mexiko, Moldavia, Nikaragua, Peru, Polonia, Portugal, Txekiar Errepublikak, Dominikar Errepublikak, Serbia, Thailandia, Venezuela.

Adopzinoa NAELen bitartez tramitautu, honeetan: Bolivia, Brasil, Burkina Faso, Bolikosta, Ekuador, Errusia, Hungaria, India, Kazakhstan, Kirgizistan, Madagaskar, Nigeria, Panama eta Vietnam.

Emon beharreko pausuak:

Informazinoa telefonoz, alkarrizketa informatiboa, eskabide idatzia eta dokumentazinoa erregistroan aurkeztea, azterketa psiko-soziala, Adopzinoen Batzordeak egokitasun ziurtagiria onartutea eta Foru Agindua, adin txikikoaren herrialdera agiriak bialtzea, adin txikiko bat esleitzea, adopzinoa eta jarraipena.

Iturriak: Foru Aldundiko www.bizkaia.net eta Espainiako gobernuo www.msssi.gob.es webguneak.



arratiako merkatarien elkarteak

AUKEREN AZOKA

MERKATARI PARTEHARTZAILEAK:

AINARA KIROLAK
EZKUR DINETAKOAK

KULTUR ETXEAN URRIAK 4

10:00 - 20:00

EURIA EGIN EZKERO, UDALETXEKO ARKUPETAN



DUATLOIA

Igorreko II. Duatloi Herrikoia

Erredakzioa

Oskar Garro ziklismo egokitu-tako txirrindulariari lagunduteko, II. Duatloi Herrikoia antolatu dau Oskar Garro Lagun Taldeak urri bigarrenaren 5erako. Igorreko eskolatan izango da hitzordua goizeko 11:30ean eta kategoria bi egongo dira: "txikiak", 10 urte baino gutxiagoko umeentzat, eta "handiak" 10 urtetik gorakoentzat. Hiru proba egin beharko dabez partaideak, bizikletan bat eta galapan bi.

Lehenengotik txikien txandea izango da. Honeek 800 metro galapan, beste 800 bizikleta gainean eta beste 200 metro galapan egin beharko dabez. Handiak, berriz, 1,5 km. galapan, 4 km. bizikletan eta beste 1,8 km. galapan.

Amaitutakoan, kopautxo partaideentzat eta zozketea egongo da.

Oskar Garro onenen artean

Bai pistan, bai bidean, onenen

artean egoten da Garro. Aurreko denporaldian, kasurako, Garro Espainiako Pistako Txapelketan urrezko domina bat eta brontzezko domina bi lortu ebazan, Espainako Errepideko Txapelketan brontzezko domina bat eta laugarren postu bat, eta Italiako Munduko Kopan erlojupekoan 20. postua egin eban eta errepideko lasterketan 16.ena.

Duatloian batutako dirua, duatloia bera pagetako eta, diru gehiago jaso ezker, entrenatzaile bat topau eta entrenamentuak pagetako izango dala dino ziklistek. "Pasa dan urtean Igorreko Udalaren laguntza ezin hobea izan neban eta aurten ba laguntza hau izan ezker, txapelketetan parte hartzeako aukerea izango neuke postu hobea lortzeako asmoagaz".

Txapelketen egutegia ondino zehaztu barik dago baina igorretarrak pistako eta bideko lasterketan parte hartzeako asmoa dauka.

IIº IGORREKO DUATLOI HERRIKOIA
OSKAR GARRO Lagun taldea
URRIAK 5

TOKIA: ESKOLETAN

ANIMATU ZAITEZ!!
AMARRAN JANARIA ETA OPARIEN ZOKKETA EGONGO DA
LUR GUZTIENTZAT OPARIAK EGONGO DIRA

TXIKIAK: (0-10 URTE)
IRTEERA: 11:30
IZENA EMATEA: 11:00 (30)

HANDIAK:
IRTEERA: 12:00
IZENA EMATEA: 11:30 (30)

Duatloia iragarten dauan kartela.

SEGA

Irati Astondoa bigarren Alemanian

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 20an jokatu eban Murhardt-en (Alemania) bertako Sega Txapelketara, Euskal Herriko lau segalari joan ziran eta domina bi ekarri ebazan. Migel Mari Jauregi Gipuzkoakoak iarbazi eban bere kategorian eta Irati Astondoa Zeanurikoak zidarrezko dominea ekarri eban.

Elisabeth Mildner alemaniarren atzetik geratu zan zeanuriztarra. Podiuma Sloveniako Marija Versic-ek osatu eban. Txapelketea Euro-

pako erara egin zan. Modalidade honetan kontuan hartzean dira txukuntasuna eta abiadura.

Trontza mistoan bigarren Nafarroako Txapelketan

Arratiarrak parte hartu eban urri lehenengoaren 27an Igantzin jokatu zan Nafarroako Trontza Txapelketa mistoan. "Nafarroako fitxea daukat eta horregaitik hartu ahal izan neban parte" azaldu deutsu kirolariak BEGURI. Mikel Eugigaz batera bigarren egin eban. Zazpi bikote aritu ziran.

BOLA JOKOA

Alzustan jokatu da Zeanuriko kofradien arteko Bola Txapelketea

Jon Urutxurtu

Urri bigarrenaren 4an, zapatuan, Alzustako bolatokia jokatu da Zeanuriko kofradien arteko Bola Txapelketea. Udalerria osatzen daben zazpi kofradietako ordezkariak izango dabe taldeka jokatzeko txapelketa horretan parte hartzeako aukerea: Alzuak, Alzustak, Asteriak, Iburguenek, Ipiñaburu-Undurragak, Otzerinmendik eta Uribeak.

Taldea 4 bolarik osotuko dabe, bolari bakotzak 6 jaurtiketa egingo dauz, eta taldekide guztiak botatuko txirloen batuketea hartuko da kontuan; beraz, txirlo gehien botatzen dauan taldea izango da irabazlea eta bardinketea egongo

balitz, "gerrea" jokatu litzateke.

Aurtengo udan, bakarkako hiru txapelketa jokatu dira Zeanurin, Alzuan, San Juston eta San Lontzon, eta toki bakotxean sailkatu ziran lehenengo hiru bolariak jokatu eban Zeanuriko Txapelketea San Lontzo bigarren egunean. Irabazlea Maximo Beitia izan zan eta bigarren eta hirugarren tokietan Jon Aranguren eta Felix Artetxe sailkatu ziran. Hiru bolari honek kofradien txapelketan be parte hartuko dabe: Beitia Otzerinmendigaz, Aranguren Iburguenegaz eta Artetxe Uribegaz.

Bola jokoa desagertzeko arriskuan

Bola jokoa Arratiako eta euskal



Alzustan bola jokoa.

RAID

Hogeta hamabost taldek emon dabe izena III. Arratia Raid-en

Erredakzioa

Gehienez 70 taldek emon ahal dabe izena, guztira 140 lagunek beraz. Antolatzaileak partaidetza 60 taldetara ailegetea espero dabe. Izen emotea hilaren 2ra arte dago zabalik. III. Arratia Raid, urri bigarrenaren 4an jokatu da Otxandion, Arratia Raid Taldeak eta AKKBk antolatuta.

Arratiako jentearen parte hartzea bultzatu gura dabe antolatzaileak. "Leku askotako jentea animau da. Logroño, Kantabria, eta Euskal Herri osoko taldeak. Aurten, Arratiatik talde gehiagok parte hartuko dabela emoten dau. Arratiako eta Otxandionko jentea animetako Arratia-Otxandion kategorian berezi bat be ipini

dogu" dino Xabier Iturriaga antolatzaileak.

Raid-a, goizeko 10:00etan hasiko da eta 7 orduko iraupena eukiko dau. Betiko probak eta "sorpresa"ren bat be topauko dabe parte-hartzaileak. Probaren hasieran, Otxandion orientazio proba izango da. Mendiko bizikletea hartu eta bidean tirolina izango dabe. Bizikletan segidu eta urtegi helduko dira partaideak. Han piraguan 4,5 kilometrotako proba egin behar izango dabe. Hauxe da aurtengo nobedadea eta Otxandion egiteko arrazoia.

Honen ostean, barriro bizikletea hartu eta trekkina. Proba hau luzea eta gogorra izango dala dino Iturriagak. Bizikletea barriro

kulturako beste hainbat gauza lez, desagertzeko arriskuan dagoala ikusiz, bultzakadaxoa emon gura deutsie antolatzaileak txapelketeari. Gaur egun bola jokoa udan eta auzune gutxi batzuetako jaietan bakarrik jokatzen da, gazteen parte hartze txikiagaz. Beraz, desagertzeko arrisku larrian dagoan kirol herriko honen biziraupena eta gazteak erakatea bilatzen dabe antolatzaileak. Juntxo Ozerinjaurregik, antolatzaileen ordezkariak dinoanez, "datorren udara begira umeentzat txapelketea antolatu gura dogu, ia animetan diran eta geure-geurea dan kirol bateri, bolari, ez deusagun desagertzen itxen".

Babeslea eta laguntzailea

Kofradien arteko txapelketa hau antolatzea ezinezkoa izango litzateke erakunde eta enpresa pribaduen laguntasuna barik, eta Zeanuriko Udalaren babeslea eta Alzustan dagoan Ellauri Hoteleko Kiloterdi jateareen laguntza izango ditu.

Sariak honako honek izango dira: talde irabazleak 120 euro eta kilo eta erdiko bi txuleta bere osagarriakaz bazkalteko edo afaltzeko aukerea izango dau Kiloterdi Txokoan, Ellauri Hotelaren jateareen; 2. saria: 100 eurokoa izango da eta 3.a 80koa.

Txapelketea amaitu ostean, parrilladea egongo da Alzustara hurreratzen diran guzientzat, auzuneko txokoan, Alzusteko Jai Batzordearen eskutik.

Beraz eskuzuloak, txorra, sinka, hirukoa, txakile, zubile, txirloa, arrapea... eta beste berba batzuk entzuteko aukerea izango da Alzustako bolatokia urriaren 4an, arrastiko 18:00etatik aurrera.

hartu eta Otxandion joango dira kirolariak, raid-a amaituteko.

Opari zozketea

17:00etan zarratuko da helmuga, eta honen ostean, bazkaria eta opari zozketea egingo da. Areatzako Hotelak, Atxarte mendiko dendak, Zazpi haizetara dendak, Sirokorekak, Otxandion kanpinak eta hainbat tabernak eta bizikleta denda pare batek emondako opariak zozketatuko dira.



HARRI ZULATUTEA

Ariane Landak bere lehenengo txapela lortu dau harria zulatuten



Maitane Campo eta Ariane Landa.

Erredakzioa

Modalidade mistoan izan zan, Areatzakoa eta Trapagarango Iban Calabozok irabazi eben urri lehenengoaren 13ko neurketea. Bigarren, beste aretaztar bat, Janire Campo, Ortuellako Joseba Agirregaz bikotea egin ebana. Zazpi bikote neurtu ziran, Galdakaoko

jaietako txapelketan.

Areatzako Ariane Landa eta Janire Campo harria zulatuten hasi ziran orain urtebete eta abenduan Santurtziko KZ Kolpeka taldean sartu ziran. Ligan, binakakoan, mistoan eta Esku Barriak, urte bi baino gitxiagoa dariozan taldeentzako txapelketan hartu dabe parte.

Urtebeteko ibilbidea

Santurtzikoak atzenak geratu ziran ligan. Harria zulatuten tradizio handia daukiezan meatzaldeko bost talderen kontra ibili ziran: Ortuella, Gallarta, Muskiz, Barakaldo, eta Trapagakoen kontra hain zuzen be. Neskez osotutako ligako talde bakarra zan Santurtziko. Binakakoan eta Esku Barriak Txapelketetan be hartu dabe parte Areatzakoak.

Ariane Landa eta Janire Campo Arratian harri zulatzaile talde bat sortzean saiatu ziran. "Igazko urri lehenengoan hasi ginan entrenetan. Hasieran Ortuellako Gorka Abad harri zulatzailea etorten zan gu entrenetan. Abenduan Santurtziko taldean sartu ginan, talde haretan neskak behar ebezan eta guk ez geunkan talderik" adierazo deutso BEGITURI Ariane Landak.

Entrenamentuak Lamindao harrobian

Hilean behin Santurtzira joaten dira Areatzakoak, taldeagaz batera egitera entrenamentuak. Han, konpetizino harriak eta entrenamenturako instalazioak daukiez. Gainontzeko entrenamentuak Lamindaoko kanteran egiten dabez baina "kanterako harriak sano errez apurtuten dira" Camporen arabera.

Euskadiko Txapelketea

Hurrengo zitea urri bigarrenaren 4an, Barakaldon jokatuko dan Euskadiko Txapelketea izango da. Santurtziko taldeak hartuko dau parte txapelketa horretan, baina Areatzakoak ez dakie euren tokauko jakien harri gainera igotzea ala ez.

MENDIA

Mendi eta bizikleta martxea Diman

Erredakzioa

VIII. Sisetan Mendi Martxea eta VI. Bizikleta Martxea izango dira Diman, hilaren 11n. Mendi martxako partaideak 08:00etan

abiatuko dira plazatik eta bizikleta martxakoak 09:30ean urtengo dabe. Mendi martxan ibilbide bi dagoz aukeran, bata luzeagoa eta bestea laburragoa. Bizikleta martxan, barriz, bakarra.

Mendi martxan ibilbide luzea egitea aukeratuten dabenak 32,7 km. egin beharko ditue eta laburra egiten dabenak erdia, 16,5 km. Ibilbide luzea aukerata be, inor 11:30erako lñunganera heldu ez bada, ibilbide laburrera pasau beharko da. Plazako kontrola 16:30ean zarratuko da. Izena aldeztu aurretik emon daiteke eta orduan 8 euro ordaindu behar dira, edo egunean bertan, 10 euro pagauta.

BTT martxea

Mendi martxak igaz baino apurto bat laburragoak badira be, ez da gauza bera gertatzen bizikleta

martxeagaz. Bizikletariak 40,76 km. egin behar izango ditue, igaz baino 3 gehiago. Izen emotea 12 euro izango dira aurretik egin ezker, eta 15 euro egunean bertan.

LASTERKETEAK

Bost eguneko egitaraua eta ekitaldiak antolatu dabez Arratian, Gorbeia Suzien lasterketearen inguruan

Erredakzioa

Gorbeia Suzien mendi lasterketea eta martxea hilaren 18an izango dira. Mendi lasterketea, Gorbeia Suzien Banco Mediolanum Sari Nagusia Euskal Kopako atzenengo proba da eta Skyrunner National Championship 14ko proba be bada. Martxea, barriz, ez da lehiakorra. Aspaldi dagoz beteta lasterketea zein martxea eta jente ugari eta giro itzela etxoten dabe antolatzaileak.

Baina lasterketea eta martxeaz gainera asko dira Suzien Mendi Klubak hilaren 15etik 19ra antolatu dituan ekintzak. Asko eta goi-mailakoak dirala esatea, ez da asko esatea. Batzuk aitzazearren, Oihana Kortazar eta Aritz Undanpilletaren mahai-ingurua Areatzan, Nuria Picas eta Zigor Iturrietaren berbaldi eta proiektzioak Igorren edo Jordi Saragossa argazkilaria eta Denis Urubkoren berbaldi eta proiektzioak Zeanurin.

Egitaraua

Urri bigarrenak 15, eguaztena
19:00etan, "Mendi-lasterketen prestakuntza" mahai-ingurua. Oihana Kortazar eta Aritz Undanpilleta. Areatzako Udal Aretan.

Urri bigarrenak 16, eguena

19:00etan, Nuria Picas eta Zigor Iturrietaren berbaldi eta proiektzioak. Igorreko Kultur Etxean.

Urri bigarrenak 17, barikua

16:30ean, familia argazkia korrikariakaz.

17:00etan, "Viviendo con la familia Salomon" Jordi Saragossaren

berbaldia. Kultur Etxean.

17:00etatik 19:00etara, lasterketa eta martxako dorsal banaketea. Frontoian.

19:00etan, ondoetorria eta ibilbidearen aurkezpena. Maider Yabarreren erakustaldia.

20:00etan, Denis Urubko. Proiektzioa eta berbaldia.

Urri bigarrenak 18, zapatua

06:30etik 7:25era, martxako dorsalen banaketea.

07:00etatik 09:00etara, lasterketako dorsalen banaketea.

07:30ean, martxearen urtekerea.

09:00etan, Mendi Lasterketen Euskal Selekzioari omenaldia.

09:15ean, lasterketearen urtekerea.

10:00etan kadeteen lasterketearen urtekerea Karkabitxuetatik.

13:30ean, sari banaketea eta materialaren zozketea.

14:30ean, bazkaria.

15:00etatik 18:00etara, tirolinea (200 metrokoa).

19:00etan, erromeria Aiko taldeagaz.

22:00etan, DJ Breakers (frontoian). Joko sorpresa! Juerga itzela.

Egun honetan ekintza pilo bat egongo da herrian egunean zehar: umeentzako jolasak eta puzgarriak, rokodromoa, slackline, 2. eskuko azokea, denda espezializauen postuak eta bertako produktu eta artisautza postuak.

Hautzandegi zerbitzua martxa eta lasterketako parte-hartzaileentzat, masaje gunea eta bazkarirako txartelak erosteko aukerea be egongo da (7€).

Urri bigarrenak 19, domekea

12:00etan, umeen lasterketea.

FILMA

Indarkeria baten kronikak Areatzan



Erredakzioa

Areatzako Udalak antolatuta, *Echevarriatik Etxeberriara*. Oartzun: indarkeriarekin bizi izan den herri baten kronikak pelikulea ikusi ahal izango da, urri bigarrenaren 2an, arrastiko 19:00etan, Udal Aretoan. Ondoren solasaldia egongo da.

Ander Iriarte Oartzungoak (Gipuzkoa) zuzendu dau *Echevarriatik Etxeberriara* luzemetraje dokumentala. Bertan, indarkeria eta ezker abertzalearen arteko hartu-emona aztertzen da, ezker abertzalearen ikuspuntutik. Preso egon dan Ixiar Galardi edo

Rufi Etxeberria ezker abertzaleko politikariaren testigantzak, beste batzuen artean, jasoten dira bertan.

Zuzendariak bere jaioterrian bizi izan dan indarkeria bat aztertzen dau ikuspuntu desbardinatetik: ETaren indarkeria, poliziarena, indarkeria politikoa, estatuarena, psikologikoa, eta abar. Oreka TX taldeak ipini deutso musikea Iriarteren dokumentalari.

Film honen eta ondorengo eztabaidaren helburuak, euskal gizartea islatzea eta bakea eta alkarbizitarako bide barriak landutea da.

LIBURUTEGIA

Liburutegi zerbitzua mantentzeko boluntarioak behar dabez Diman

Erredakzioa

Dimako Herri Liburutegia lan taldeak, kanpaina bat ipini dau martxan liburuzain boluntarioak lortzeako. Izan be, boluntarioen beharrari esker dago zabalik be-
rau, baina aurtengo ikasturtean, igazkoan baino boluntario gutxiago dagoz eta lan taldeak izena emoteko deialdia zabaldu dau. Boluntario bakotxa hilean behin egongo da liburuzain lanetan.

Urri bigarrenaren atek zabaldu teko asmoa dauka Dimako Herri Liburutegiak. Aurreko ikas-

turtean, 36 boluntarioen beharraz mantentzeko zabalik zerbitzua, astelehenean zapatuta, egunean hiru orduz. Aurtengoan, boluntario gutxiago dagoz eta astelehenean barikura zabalteko asmoa agertu dau lan taldeak, arrastiko 16:30etik 19:30era, hain zuzen.

Zerbitzua zabalik mantentzeko lagunduteko hilean behin liburuzain beharrak egiteko prest dagozanak udaletxean emon behar dabe izena edo dimekoliburutegia@gmail.com helbidera idatzi.

IKASTAROA

Bertoko euskerea landuteko ikastaroa

Erredakzioa

Bediako Udalak Arratiera ikastaroa antolatu dau, herri hizkerea ezetuten dabenak sakondu eta idatziz be erabili ahal izateko, eta Arratiako euskerea ez dakienak ezagutza batzuk jasoteko. Izena hila-
ren 13a eta 24a bitartean emon behar da Bediako liburutegian.

Ikastaroa urri bigarrenaren hasiko da eta abenduan amaituko. Guztira sei saio izango dira. Eskolak martitzenetan izango dira 19:00etatik 20:30era arte. Hiru gai landuko dira eta bakotxari saio bi eskeiniko jakoz. Gaiak honeexek dira: Arratiako lexikoa, Bizkaieraz idazteko gomendioak eta Arratiako etno-
ipuin eta esaundak.

Irakasleak

Arratiako lexikoaren gaineko es-



Irudian Zertuk atzenengoz antolatu eban Arratiera tailerraren kartela.

kolak Jantxu Rekaldek eta Angel Larreak emongo ditue. Arratia Institutuko irakasle bi honeek *Arratia Inguruko Hiztegiaren* egi-leak dira.

Bizkaieraz idazteko gomendioak Aitor Erdoziaren eskutik jasoko dabez ikasleak. Erdozia zeanurikoa itzultzailea da. Labayru ikastegian egin eban behar urte askotan eta orain HAAE-IVAPen

dago beharrean. BEGITU Aldizkaria argitaratzen dauan Zertu alkarte-ko Zuzendaritza Batzordeko kidea be bada Erdozia.

Arratiako etno-
ipuin eta esan-
unden barri Juan Manuel Etxebarriak emongo dau. Irakasle eta etnolinguista zeberioztarrak, bertoko mitologiak gainera, Zeberio-ko euskerea be aztertu dau bere lanetan.

KONTZERTUA

Jabier Muguruza eta Gari Lasarte Aretoan

Erredakzioa

Jabier Muguruza eta Gari bakar-lariak Igorren egongo dira urri bigarrenaren 4an, 21:30ean, euren atzenengo diskoetako kantuak zuzenean abesten.

Muguruzak 20 urte bete ditu bakar-lari gisa, eta ospatuteko *Beste hoge* diskoa kaleratu dau, Mikel Azpiroz musikari eta ekoizlearen laguntzeagaz. Diskoko kantuetan, Bernardo Atxaga, Harkaitz Cano, Iñaki Irazu, Jose Luis Padrón, Lourdes Oñederra, Jose Mari Iturralde eta Xabier Leteren testuak musikatu ditu. Jabier Muguruzak beti jaso izan ditu kritika onak eta sariak be irabazi egin ditu.

Gari (Iñaki Garitaonandia) Hertzainak taldean sartu zan 1983an eta taldeko abots nagusia izan zan ia hamarkada oso baten. Zazpi disko argitaratu eba-

zan Hertzainak taldeagaz. 1993 urtean bakarkako biderei ekin eutsan Gari, eta harrezkerotik, beste 7 disko kaleratu ditu. Bere atzen diskoan, *Ez da amaiera* abangoardiako rock gordina eskeintzen dau. Austin-eko (Texas) South by Southwest jaialdian

aurkeztu eban disko hau eta kritikoaren esanetan, inoiz baino hobeto abesten dau Gari, inoiz baino ausartago dabil, eta kantu bakotxean bere barrenak husten ditu. Atzenaldi honetan, "Zeruari begira" kantua egin dau Hodei Egiluzen bilaketan lagunduteko.



Gari eta Muguruza

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu
Bixarra egin eta txukunduten dogu
Elexalde, 20 Rober ☎ 630 743 543
48.140 Igorre Manuel ☎ 661 848 793

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Felig Menditea, s/n. 48550 LEMOIA, Bizkaia
Tel: 609 480 830 eta 609 200 717

ZEKUTZE
JATETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekutejartza@hotmail.com

Dia %
PEDRO
AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

KIRRU • ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 baxo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
☎ 94 631 92 06

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a ☎ 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia ☎ 609-79-49-54

ASIEREAK
basola Emaldi
FERRIN ADMINISTRAZIOA
Abokatuak
☎ 620. 57.86.04
☉ asierabasola@hotmail.com
Bilbao-Zeanuri

umeen modu
SEM
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • semmoda@hotmail.com

ALKARTEA

Panpin eta maskarak egin eta erabilteko Sugo alkarte sortu da Areatzan

Erredakzioa

Erraldoi, txotxongilo eta abarren inguruan beharrez ibili diran hainbat lagunek alkarte bat sortu dabe Areatzan dagozan panpin erraldoiak erabilteko, kale animazio ikuskizunak sortuteko eta tailerrak antolatuten jarraituteko. Sugo dauka izena alkarte barriak eta Areatzako Gazte Lekuko lokalak izango dira panpin laborategiaren egoitzea.

Hurrengo hileotan Sugo alkarteak Udalgaz hitzarmen bat sinatuko dau, Areatzako erraldoi, buruhandi, eta Arratiako txotxongilo erraldoiak konserbetako, barritzateko eta erabilteko baldintzak zehazteko.

Alkarteak hiru helburu nagusi ditu. Panpina, erraldoiak zein txikerrak, eta maskarak egingako kale animazioa bultzatzea da helburuotako bat; panpinak eta maskarak egiteko teknikez jabetzea eta zabaltzea, beste bat,

eta kale animazio bultzatzea eta antolatzea, hirugarrena. Horretarako, panpinak eta maskarak egiteko eta mantentzeko ikerketa laborategia eta tailerra daukiez Sugo alkartean.

Hainbat talde

Alkartearen asanblada eratzailean 22 lagunek emon eben izena, baina bazkide izateko deialdia egiten deusez Sugoikoak arratiarrai.

Alkartean atal desbardinak landuten dira. Holan, kale animazioari jagokonean, erraldoiak jantzen dauan taldea dago, txotxongilo erraldoiak jantzen dauana eta ikuskizun barriak sortuteko taldea. Panpin laborategiari jagokonean, barriz, talde bat dago panpinak, maskarak zein erraldoiak egiteko tailerrak antolatuten dauana; beste talde bat tailer horreetan parte hartzen dauana, eta hirugarren talde bat teknika barriak sortuteko.



Txotxongiloak egiten Areatzan.

ONDAREA

Zeanuriko kofradietatik bisitak ondarea ezetuteko

Erredakzioa

Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako 2014ko Ondarearen Europako Jardunaldien gaia "Etxea" da. Zeanurin, Jon Urutxurtu historialariak gidatutako bisita bi antolatu ditue. Lehenengoa, Iburguen eta Alzusta kofradietatik izango da hilaren 4an; bigarrena, hurrengo domekan, hilak 12, Iburguen, Uribe eta Asteriatik zehar. Partaideak goizeko 10:00etan batuko dira Zeanuriko plazan. Zeanuriko udalerria zazpi kofradiak osotuten dabe.

Ibilbidean azaltzen diran etxebizitza mota desbardinak aztertuko ditu Urutxurtuk. "Iburguen kofradian,

plazako etxe esanguratsuenak XVII. mendetik gaur egunera artekoak, eta estilo eta funtzio desbardinak, adibidez Emaldi baseria, Udala, Arregiako etxeak". Gero, plazatik Alzustarantz zuzenduko da ibilbidea, gune bi honek lotzean ditan galtzada zaharretik ibiliz. Bide erdian Agarre Behokoa eta Agarre Goikoa baserriak aztertuko dira, lehena zaharra eta bigarrena oraintsu barritzatuta.

Alzustan, Kallarte auzoko etxebizitza multzoaren azterketea egingo dau gidariak. "Hemen, baserriak kale luze bat osotuz azaltzen dira. Atzustako hau egurrezko itxidura eta egitura bakartuko baserri multzo

aberatsenarikoa da Bizkaia mailan. Hemen be era desbardinak base-riak ikusiko doguz: batzuk jatorriz XVI. mendekoak diranak, beste batzuk arratiar tipologiakoak eta besteren bat neoklasikoa" dino Urutxurtuk.

Iburguen, Uribe eta Asterria

Hurrengo domekan, hiru kofradietatik egingo dabe ibilbidea eta partaideak Iburguen, Uribe eta Asterria ezetuko dabez. Iburguen kofradian, plazako etxe esanguratsuenak aztertuko dabez, estilo, funtzio eta sasoi desbardinak. Uriben, atentzino berezia ipiniko deusie Zulaibar-Beasko baserriari. Asterria kofradian ibilbidea lau errotaren ondok igaroko da eta Akauri torretxea eta Emaldi Garai baserriaren gaineko zehaztasunak emongo ditu Urutxurtuk. "Atzen hau jatorriz XVI. mendearen erdialdekoa da, eta bertan tximiniarik bako sukaldeko sua ikusteko aukerea izango dogu".

LEHIAKETEA

Egutegia egiteko Argazki Lehiaketea

Erredakzioa

Lemoako Udaleko 2015eko egutegia egiteko, Lemoako III. Argazki Lehiaketea abian da. Hamabi argazki sarituko dira egutegia osotuteko. Argazkiak zemendiaren 7ra arte bialdu daitezke udaleko kultura zerbitzura.

Gaia Lemoa da eta edonork hartu daiteke parte. Ez da argazki panoramikorik onartuko eta bakotzak argazki bakarra aurkeztu ahal izango dau. Zuri-baltzean, koloreetan edo mobikorragez egindakoak izan daitezke.

Argazki sarituak egutegian argitaratuko dira eta 30€ko saria izango dabe.

DISKOA

Zeinke taldeak maketea atera barri dau

Irati Urien

Zeinke musika taldeak bere lehenengo maketea atera dau. Abuztuan hasi ziran martxan proiektu honeguz eta honezkerokalean dago. Jokin Uriarte, Pablo Ruiz eta Mikel Muesasek osotuten dabe taldea. Hirukote honen estiloa rockaren barruan kokatuten da, baina eragin heterogeneoa daukiela eta, euren musika ez dabela estilo zehatz baten sartzean azaldu deuskue. Momentuz salmentea sano ondo ei doa. "Etxekoak erosten animau dira

eta lagunak be engainau doguz", dino umoretsu Pablo Ruizek. Sal-dutearen asmoa dirua irabaztea baino kontzertuetan jentek kantak ezetutea dala be azaldu dau. Hiru euro balio ditu diskoak; gura dauanak zeinkerock@gmail.com helbidera idatzita, Facebook bidez zein euri zuzenean eskatuta lortu leiteke. Laster egingo dabe maketearen aurkezpena, sorpresa eta guzti.



DUNBA

Mundu barri bat

6. mailako ikasleak zuzenduta.

Arratia Institutuko DBH 1Bko ikasleak

Gu, DBH 1Bko ikasleak gara, aurten etorri barriak. Lehenengo egunetan, institututik galduta ibili gara barruak ondo ezetu arte. Lehenengo egunean, tinbreak jotzen ebanen bildurtu egiten ginan, motxila eroan ezinik be ibiltzen ginan, baina bagoaz ohituten.

Honezkerok lagun asko egin

doguz eta oso ondo konponduten gara eurakaz. Hasikeran artega eta lotsatuta egon ginan, jentek dana baltz ipinten euskulako, baina esandako gehiena guzurre dala konturatu gara.

Lagunak esan euskuen irakasleak oso zurrinak zirala, etxerako lan asko emon, eta azterketa gatxak ipinten ebezala. Baina danetarik dago, badagoz holango irakasleak, baina irakasle jatorrak be bai; barreak be egiten

doguz. Institutua eskolearen aldean desbardina da, ordu gehiago emoten doguz jarrita, eskolan zaharrenak ginan, orain gazteenak, eta pilo bat jente barri dago, danak gu baino zaharragoak.

6. maila amaituten zagozanean, institutua ikusten etorriko zarie, handia emon arren, trankil, ez da hain handia. Hori bai, irakasle pilo bat dago, askotan urterik urtera aldatu egiten diranak. Amaitzeko, ondo pasauko dozue,



DBH 1Bko ikasleak.



baina institutua da, eta lan egin beharko dozue.

Gelako denporea ondo aprobetxatuten badozue, etxeko lan gitxiago eukiko dozue etxerako, eta klasean egindakoa eguneratuten badozue, errezagoa egingo jatze kursoa ondo eroatea

Beste barik, zuen zain gagoz!

AGENDEA

URRI BIGARRENAK 1
BEDIA

"Egin dagigun ipuin bat" lehiaketan lanak aurkezteko epea zabalzen da zemendiaren 17ra arte.

DIMA

Yoga, Pilates eta Eskulanak ikastaroetan matrikuletako epea hilaren 7ra arte.

LEMOA

Haurreskolan matrikuletako epea hilaren 10era arte zabalik.

ZEANURI

Bertso eskolan hasteko deialdia. Ume, gazte, zein helduentzat atek zabalik. Kontaktoa: Eñaut Intxaurreaga.

URRI BIGARRENAK 2
AREATZA

19:00etan, *Echevariatik Etxeberriara. Oiartzun: indarkeriarekin bizi izan den herri baten kronikak* pelikulea eta solasaldia. Udal Aretoa.

IGORRE

19:00etan, berbaldia "Goi tensinoa eta kalteak osasunean" Urkuzuko txokan.

URRI BIGARRENAK 3
DIMA

Indusiko jaiak. Ikusi egitaraua 6. orrialdean.

19:30ean "Diman etxean gura doguz" errepresaliaduen aldeko konzentrazioa plazan.

ZEBERIO

18:00etan, Arantza Arrienen berbaldia "Hazietatik nekazaritza berreraikitzen". Plazan. 19:00etan, bideoa *Bertoko haziak eta jakintzak*. Plazan. 20:30ean, barauskarria bertoko produktuakaz. Plazan.

URRI BIGARRENAK 4
IGORRE

10:00etan, AMEk antolatuta, Aukeren Azokea. Kultur Etxean. Euria bada udallexeko arkupetan.

21:30ean, Jabier Muguruza eta Gariren

kontzertua Lasarte Aretoa.

ZEANURI

10:00etan, bisita gidatua Iburguen eta Alzustako kofradietatik zehar. Ondarearen Europako jardunaldiak. Gidaria: Jon Uruburtu. Plazan.

18:00etan, Kofradien arteko Bola Txapelketea, Alzustako bolalekuan. Ostein parrilladea hurreratzeko diran guztientzat Jai Batzordearen eskutik.

ZEBERIO

10:00etatik 11:00etara, Nekazalgunean garatzen dabizen proiektuen eta Basortu

Elkartearen konserberearen aurkezpena. Nekazalgunean (Eremitabarriko lehengo eskolan). 11:30etik 13:30era, Hazi Azokea plazan.

URRI BIGARRENAK 5
IGORRE

II. Duatloi Herrikoia. 11:30ean "txikerren" urtekerea. 12:00etan, "handien" urtekerea.

17:00etan, zinea *Tarzan* (euskeraz). 19:30ean, *El amanecer del planeta de los simios* Lasarte Aretoa.

ZEBERIO

19:00etan, zinea *Deseando amar* (zuz.: Wong Kar Wai). Udallexeko 2. solairuan.



Karmelo Undurragaren pintura figuratiboa Igorreko Lasarten

Hilaren 3an hasita eta urri bigarrenaren 31ra arte, Karmelo Undurraga Ibarrodo igorretarraren lanak egongo dira ikusgai Igorreko Kultur Etxeko erakusketa gelan.

Egilea 1920ean jaio zan Igorren eta bertan bizi izan zan 1943ra arte. Gaur egun Burgosen bizi da. Erakusketa honetan atzen hamarkadetan egindako lanak erakusten dira.

Karmelo Undurraga margolari figuratiboa da, paisajeak, bodegoiak eta erretratuak pintetan ditu. Erakusten dan obrarik zaharrena "Nire amama" izenokoa da, 1978koa.

URRI BIGARRENAK 6
BEDIA

17:00etatik 20:00etara eta hilaren 17ra arte, 2014ko lehenengo sei hilekoan egindako ekintzen argazkien erakusketea. Liburutegian.

URRI BIGARRENAK 9
IGORRE

19:00etan, berbaldia "Goi tensinoa eta kalteak txoriengan". Kultur Etxean.

URRI BIGARRENAK 10
ARRATIA

BEGITUKO Argazki Lehiaketan parte hartzeako epea zarratzen da.

LEMOA

20:00etan, Lemoako Korralak antolatuta, Kantu-pote, EAren tabernatik. Ibilbidea: EA, Txoane eta Axteta tabernak.

Ganzabal Mendi Taldeak, hilaren 12ra arte, urtekerea Pirineoetara. Gourette-Pic de Ger (2.613 m)-Grand Gabizos (2.692 m.).

URRI BIGARRENAK 11
ARANTZAZU

San Fausto jaiak. 12:00etan, II. Ugel Txapelketea. 16:00etan, Zuberoako maskaradea. Gaztedi Dantzari Taldeagaz. Barrikadak Arantzazugoititik hasita. 18:00etan, ofizioak herriko plazan. 20:00etan, herri afaria frontoian. Afalostean erromeria.

BEDIA

07:00etan, urtekerea Sellako jeitsiera.

DIMA

08:00etan, VIII. Sisetan Mendi Martxea. Plazan. 09:30ean, VI. Sisetan BTT Martxea. Plazan.

IGORRE

22:00etan, zinea *Chef* Lasarte Aretoa.

ZEANURI

Parrokiakoak urtekerea Itxasu, Ezpeleta eta Donostiara.

URRI BIGARRENAK 12
IGORRE

09:00etatik 13:00etara, Garbeko Azokea.

17:00etan, zinea *Aviones*. 19:30ean, zinea *Chef* Lasarte Aretoa.

ZEANURI

10:00etan, bisita gidatua Iburguen, Uribe eta Asterria kofradietatik zehar. Ondarearen Europako Jardunaldiak. Gidaria: Jon Uruburtu. Plazan.

URRI BIGARRENAK 13
BEDIA

17:00etatik 20:00etara eta hilaren 24ra arte, Arratiera ikastaroan izena emoteko epea zabalik. Liburutegian.

LEMOA

Hilaren 24ra arte, Reflex Argazkigintza Tailer Praktikoan izena emoteko epea. Udaleko Kultura Zerbitzuan.

URRI BIGARRENAK 14
BEDIA

Udalak antolatuta, jubiladuen urtekerea Añanako Gatzagetara.

URRI BIGARRENAK 15
AREATZA

19:00etan, "Mendi-lasterketen prestakuntza" mahai-ingurua. Oihana Kortazar eta Aritz Urdanpilleta. Udal Aretoa. AKKB eta Suzien Mendi Klubak Areatzako Udalaren laguntzeagaz antolatuta.

LEMOA

19:30ean, Jai Batzordeak jaien balorazioa egiteko batzarra, udallexean.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

MASAJEAK EMOTOKO OHATILA
SALGAI

Masajeak emoteko ohatila saltzean dot, barri-barria, bitan bakarrik erabilitakoa. Tolesgarria, besapean eroatekoa. Prezioa 100 euro. 619 661 841.

UMEENTZAT AULKIA SALGAI

Bugaboo markako umeen sillea eta maxicosia saltzean dodaz neguko eta udako fundeagaz. Interesautu zagozenak 615 799 356 telefonora deitu (Laura).

VENDING MAKINEA SALGAI

4 urte dituan vending makinea salgai. 279 produktu sartzeako kapazidadea dauka. Interesatuak 645 725 252 edo 606 771 708 telefonora deitu.

DANERIK
TRASTELEKU BILA

Trasteleku bila nabil. Merkea, 30 euro inguru. Interesdunak deitu 656 742 768 (Bego) telefonora.

PISUA ALOKATZEN DA

Pisua alokairuan Lemoan. Logela bi, komun

bi, sala handia, sukaldea, balkoia eta garajea. Etxebizitza barria, zonalde onean kokatua. 656 771 662.

LANGILE BILA

Etxeko beharrak egiteko eta umeak jagoteko persona euskalduna behar da. Deitu 646 600 490 (Eider).

EROSI

TRIKITIXEA EROSIKO NEUKE

Trikitixa esku soinua erosiko neuke. 653 716 691 (Jon Andoni) telefonora deitu.


Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 **Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Jabier Muguruza eta Gari-ren kontzerturako.**

Aitziber Iza (Igorre)
Iñaki Esparza (Arrigorriaga)



2 **Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *El amanecer del planeta de los simios* filmarako.**

Garikoitz Etxebarria (Igorre)
Aimar Gorospe (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,


zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 12

urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA


1.- Estatu. 2.- Mezea emoten dau.
3.- Zeregin, egiteko. Euskararen Gaitasun Agiria. 4.- Modua. Utikan, kanpo. 5.- Uranioa. Urtao beroa. Bokala. 6.- Musika nota. Haran. 7.- Holandako uria. Lehenengo andrazkoa. 8.- Modura. 9.- Sutan kazolak ipinteko hiru hankako tresna.

GOITIK BEHERA

1.- Bat erromatar. Gizon zahar. Letra bat. 2.- Personaje mitologikoa. Galant. 3.- Ohar. Juntagailua. 4.- Barre-algararen onomatopeia. Kontuz, erne. Oinarritzko lau odol taldeetako bat. 5.- Kide. Animalia. 6.- Urtao hotz. Egur-mehe. 7.- Bokala. Kanporatu. Bokala.



Topau munduko zazpi sumendiren izenak.



AKI MI KO

Zorrozkiilo



Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

begitu arratia ubide zeberio
publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Los Chopos
neurria egindako armairuak
Arda, Los Chopos, 33 (Nagar) Tel.: 94 430 40 94
Esposizinoa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIN ERDARAZ
Balonak: A1, A, B77, B
Lehendakari Agirre 31
Tfnoa: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@vodafone.net

AKITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DERU KONTRATUEN
ONDASUN HIGIEZKINEN
ASIGURUETAN
Bilbo Arria, 3 Tfnoa: 94 673 71 41 - Faxa: 94 673 94 41 - 48140 IGORRE

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

axular kultur elkartea
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.l.
CONSTRUCCIONES
Iturriotz barrena 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: cbras@construccioneseekin.com

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTU SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Gorbe, 10 - 48140 Igore (Bizkaia)
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 80
e-posta: urrozalu@vodafone.net

HARRIKETARRAK GAZTE ASANBLADEA

"Gura dozun bizia eregiten ikasteko espazio bat da Karabie, beti kolektiboan"

Hamabost urtean barikuro batuta "bizitza zorionsuen fabrika"

eregitia lortu dabe Lemoako hainbat gaztek. Euretako hirugaz

egon da BEGITU Asier Iturrate, Laura Ruiz eta Begoña Barroeta

Karabie Gaztetxeko parte dira. Harriketarrak 15. urteurrena

ospatuteko jaialdi berezia prestatu dabe hilaren 24, 25 eta 26rako.

Irati Urien

"15 urte bizitza zorionsuen fabrika" da aurtengo leloa. Non-dik dator?

Laura Ruiz: Urteak daroaguz herri-gintzan, herri gris bat koloreztatzen. Aldaketa bat emoten dabil herri mailan, tartean udala be aldatu dalako. Hemetik aurrera Gaztetxean papela berokatu egin behar izan dogu, eta bizitza zorionsuen fabrika berokatzeko horretako ibilbidea da. Kolektiboan zorionsu biziteko aldatzea eta espazioa hau dala, Gaztetxea bera dala.

Asier Iturrate: Honeetan hamabost urteoneetan pilo bat gauza eregi dira hemen, baina dana bizimodu on baterako, kolektiboan zorionsu biziteko.

Zer dakizue hasikerearen inguruan, zer kontau deusue?

Begoña Barroeta: Badakit lehenengo Gaztetxea han goian egoala. Lehenengo asanbladea eskoletan izan zan eta gero handik Karabira joan ziran,

hortik dator izena. Herrian ez ei egoan ia ezer, orduan gazte talde bat batu eta antolatzen hasi zan bai eurei begira eta bai herriari begira.

LR.: Urtebete egon ziran goian, erre egin zan arte. Gero lanketa bat egin zan, Gaztetxe barik baina gazte asanbladea martxan egoan. Herrian lanean ibili ziran, eta urtebete pasau orduko hainbeste sinadura lortu ebezan. Gazteak merezidutako espazio bat irabazi ebela demostratu eben.

AI.: Udalak ezin izan eban ezetzik esan. Firma lanketea atez ate egin zan, egundoko beharra egin eben.

LR.: Sarritan dinoe zelan gaztetxe hau ez dan okupatutakoa, udalak emondakoa baino. Baina niretzat ez da udalak emondako espazio bat. Gazteak eta herriak lortutako espazioa da. Ez okupazinoz, baina bai gazte eta herri indarragaz lortutakoa.

Hasikerako filosofiak segiduten dau?

AI.: Nik aldaketa txiker bat igarri dot.

Atzen finean belaunaldiak aldatu egin dira, beharizanak aldatu egin dira eta izakerak be aldatu egin dira. Herria mobiduten hasi da, orduan beharizan eta izakereagaz batera filosofia be garatzen joan da. Eta garapen horretan filosofia be aldatu egin da.

LR.: Momentu baten kultur eskeintzea inertziak emoten ibili ginan, dinamika bat sortu zalako eta Gaztetxea sano potente ibili zalako. Baina gauzak zelan egiten gabizen pentsetan parau gara, garrantzia zeri emoten gabizan. Horregaitik apur bat barrura begira gabiz, gure arteko hartu-emonak, hermen bizi doguzan bizi esperientzien barri zelan emon. Ideologia aldaketa edo momentuak eskatuten dauan aldaketea da. Ez hobea ez txarragoa, garapena.

Harriketarrak Gazte Asanblada barik Karabirik ez...

B.B.: Nik urte bete daroat asanbladeara etorten baina orain dala hamabost urtetik hona barikuro egin ei dira batzarrak, eta hori gauza handia da. Gaztetxean hazi diranak duda barik badakie barikuetan asanblada dauala, inertziak ikasten dan gauza bat da.

LR.: Asanblada da hemeko erabagite gunea, eta hor ebatzen da dan-dana.

Babestuta sentidu zarie?

AI.: Hau herriaren babesagaz lortu zan, orduan parte horretatik bai.

LR.: Udalaren babes falta izan jakun bere momentuan. Mehatxuak eukitakoak be bagara. Negu oso bat kalefazio barik euki ginduezan ia hemetik joaten ginan, herrian pintadak agertu ziran eta Gaztetxeok izan ginala esan eben eta Gaztetxeak pagauko ebala...

Bide honen ze balorazino egingo zeunkie?

LR.: Bizitza zorionsuen fabrika. Atzen bizia benetan emoten deusuna. Emoten dau zorionsuna itzelezko kotxe bat eukitea dala, baina guretzako ez da hori. Bizitza zorionsu baterako kolektiboan bizitea, sortutea, ahalik eta modurik justuenean bizitea, danok ondo egotea... topau behar dozu, eta guk hori hermen topau dogu.



AI.: Beti burruka bategaz, beti hausnarketa bategaz. Ez da ahaztu behar.

Zelako etorkizuna aurreikusten dozu? Badago erreleborik?

B.B.: Ez da errelebo kontua, baina ikusten da belaunaldi bat pasau dala. Askok euren eguneroko bizimoduaren hermen egiten segiduten dabe baina ardurak beste batzuei ixten hasi dira.

LR.: Halanda be, ekintzak danonak dira, danok segiduten dogu ekarpenak egiten. Lehenagoko Karabiera sartu ziranak ekarpenak egiten segiduten dabe hermen, eurak barik ez ginan ezer izango eta orain be behar doguz. Erreleboa inportantea da eta emon egin behar da, baina hau gure etxea da eta gure etxea izaten segiduko dau.

Zuek gaztetxea egonda hazi zarie. Imaginatu zeunkie berau bako bizimodu bat?

LR.: Ez dakigu zer egingo geunken hau eukiko ez bagendu. Guretzat hau da eguna pasetako era bakarra. Eskualdeko herrietan errealidade desbardinak dagoz. Ohiturak beste batzuk dira eta badakigu zenbat kostetan dan ohiturak aldatutea. Gureak hermen zentretan dira, Gaztetxean. Amaierarte egingo dogu burrukan, ez dakigu beste era batera egoten eta. Pentsetan dot orain gazteen artean asko pasetan dala "ez daukat denporarik" entzutea. Sistemeak sartu deusku erretolika hori atzenean, ezertarako denporarik ez izatearena, ikasteko eta beharrerako baino ez, indibidualismo hori.

AI.: Eta guk justu kolektibitate zentzu hori daukagu, egunero pasau behar gara Gaztetxetik. Bakotzak era batera bizi dau, eta era guztiak dira politak.

LR.: Gaztetxea aldatuko da, hemeko jenteak gura dauana izango da. Momenturen baten aste barruan zabalik egon behar ez bada, ez da egongo.

Zer esango zeunskie herrian gaztetxe bat euki ez dabena?

AI.: Pena bat dala, sano aberasgarria dalako. Asko gozatuten dozu. Bizi esperientzian nortasunean, bizi erduan... danean eragiten dau.

Pasadizo latz zein ederren bat?

LR.: Gure txosnea uda guztian hortik zehar ibiltzen zan. Arantzazura heldu zan, atzenengo jaiak ziran, sanfaustoak. Udalak itxitako lokal baten itxi eben. Hainbeste denporan egon zan bertan, eta egun baten etxe hori bota egin eben. Gure txosnea txatarrak bat zan baina geunkana zan eta digustua hartu genduan. Matrakan Arantzazukoakaz, gu geure artean, eurak euren artean... burukomin batzuk emon ebazan. Bestela hamargarren urteurrena itzela izan zan, negar egitekoa. Hirurehun persona baino gehiago egon ziran herri afarian.

AI.: Onak mila. Stankeik, kortoak, Korrikarako lipduba...

15. urteurreneko ospakizun jaialdirako zer prestatu dozu?

B.B.: Hilaren 24, 25 eta 26an izango da. Barikuan poteoa, afaria, emonaldia eta Stankeik. Zapatuan kalejira koloretua, afaria eta kontzertuak: Eskean Kristo, sorpresa bat, Willis Drummond eta Izerdi Gorria. Domekan batuteko auzolan girotua, eta txokolatea.

Zer da zuontzat Karabie?

LR.: "Bizitarako unibersidadea". Gura dozun bizia eregiten ikasteko espazio bat da Karabie, beti modu kolektiboan.



funerariagalarza.com

egizu lo lasai, geu arduraturako gara zeure loaz

- Beilatokia
- Errausketa-labea
- Gorpuak eroan zein ekarri estatu barruan eta atzerrian
- Lora-apaingarrien salmenta
- Gestino administratiboa
- Eskelak, doluminak eta esker onak online

- **Bulegoa**
Zabalea, 51 · 48960 Galdakao
t. 944 570 395 (24 ordu)
f. 944 575 043
e. info@funerariagalarza.com
- **Dimako tanatorioa**
Ziarrusta industrialdea, 39
- **Galdakaoko tanatorioa**
Zabalea, 24

